

Foro Álava de Responsabilidad Social Empresarial • Enpresen Gizarte-Erantzukizunerako Araba Foroa



2022 AZAROAK

ERAKUNDEEN GARDENTASUNA ETA GORBERNANTZA ONA



ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNERAKO ARABA FOROAK BERE XVI. BILTZARRA EGIN DU ERAKUNDEEN GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA ARDATZ DITUELARIK

FOARSEk antolatutako urteko topaketa FOARSEko presidentea, Gasteizko Udaleko Merkataritza, Prestakuntza eta Enplegu zinegotziak, eta Arabako Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontuen zuzendariak inauguratu zuten, eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak itxi zuen.

FOARSE Enpresen Gizarte-erantzukizunerako Araba Foroak urriaren 6an, ostegunarekin, egin zuen Arabako EGE enpresen gizarte-erantzukizuna bultzatzeko urteroko XVI. biltzarra. "Erakundeen gardentasuna eta gobernu ona" izenburupean garatu zen edizio hau Europa Jauregian egin zen, aurreko edizioetan bezala. San Prudentzio Fundazioko Yolanda Berasategui, FOARSEren presidentzia ordezkatuz, Gasteizko Udaleko Merkataritza, Prestakuntza eta Enplegu zinegotzi Igor Salazarrek eta Arabako Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontuen zuzendari Eduardo López de Eguiletak inauguratu zuten. Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuorde Elena Pérez Barredok itxi zuen ekitaldia. Enpresak gizartean behar bezala legitimatzeari begira gardentasunak eta gobernu onak duten garrantzian bat etorri ziren hirurak, baita FOARSEren urteko hitzordu hau bezalako topaketak egiteko premian ere, enpresek erreferentziako guneak izan ditzaten partekatze eta inspiratzeko.

Honako hauek dira Enpresen Gizarte-erantzukizunerako Araba Foroko ki-deak: Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Uda, Konfekoop (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa), Asle (Euskal Lan Sozietateen Elkarte), Kutxabank eta San Prudentzio Fundazioa.

Arlo horretan Espainian dagoen aditu handienetako bat izan zen jardunaldian, Enpresa Gobernatzeko Institutuaren fundatzaile eta UPV Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren Gizarte Kontseiluko kide Eva Turanzo, zeinak bere irekitze-ponentzian etikak eta gardentasunak enpresen eta negozioen lehiakortasunean duten eragin zuzenari buruz hitz egin



Ezkerretik eskuinera: Eva Turanzo, Igor Salazar, Eduardo López de Eguileta eta Yolanda Berasategui

baitzuen. Erakundeetako enpresen gizarte-erantzukizunerako politikaren ardatzetako bat bihurtu diren bi aldagai dira.

Gogoetak eta egungo erronkak partekatuz zituen Turanzok Europa Jauregiko Florida aretora bertaratutako 50etik gora lagunekin. Beste zenbait alderdiren artean, enpresentzat pandemiaren ondoren murgilduta gauden izen onaren galtze orokorreko garai hauetan konfiantza atxikitzearen garrantzia nabarmendu zuen. Eta konfiantza hori konpainia baten alderdi ukiezin batzuen gainean eraikitzen da gero eta gehiago, hala nola konpainiaren helburua, koherentzia, izen ona edo konpainia bera osatzen dutenen talentua.

GARDENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN ARLOAN ERREFERENTZIA DIREN 3 ENPRESA

Hasierako ponentziaren ondoren mahai-inguru bat egin zen non 3 euskal enpresak –bakoitza bere sektorean erreferentziazkoa gardentasunari eta gobernu onari gagozkiola– hainbat esperientzia, aurrerapen eta erronka partekatu zituzten enpresen gizarte-erantzukizuna erakundeen eta haien negozio-ereduen eguneroko estrategian sartzeko premiari buruz, jarduera mota edozein izanda ere,


betiere modu proaktibo eta konprometitutuan, eta egituraren maila guztietan.

Oraingoan gonbidatutako enpresak honako hauek izan ziren: KL Katealegia, Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko erakundea, industria-hornitzaile gisa duen rola desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sortzeko eta iraunarazteko funtzio sozialarekin uztartzen duena. Kutxabank, zeinak gaur egun bankaren sektorean gardentasuna egikaritzeko beharrezkoa den eskakizuna eta xehetasuna partekatu ahal izan baitzuen, edo Mondragón Korporazioa, zeinak horri buruzko azalpena ikuspuntu korporatibistatik egin baitzuen.

Biltzarraren XVI. edizio hau, aurreko urtekoa bezala, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuorde Elena Pérez Barredok itxi zuen, eta bere mintzaldian enpresen gizarte-erantzukizunerako politikak enpresa-kulturan integratzea bultzatzeko dagoen gero eta premia handiagoa nabarmendu zuen, eta gizarteak gardentasuna eta lan ona oinarri dituen ahalegin hori horrela aritzen diren enpresak sarituz balioesten duela azpimarratu zuen.



GOBERNANTZA INSTITUTUKO ZUZENDARI EVA TURANZOK GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA AURKEZTU DITU “ETORZIKUNERA BEGIRAKO BALIOA” SORTZEKO GAKO GISA



Eva Turanzok gardentasunaren eta gobernu onaren arloan Estatuan dagoen aditu handienetako bat, Enpresa Gobernantzako Institutuaren fundatzaileetako bat eta UPV Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Gizarte Kontseiluko kidea dugu, eta berak ireki zuen FOARSEren XVI. Biltzarra enpresa eta erakundeetan gobernu ona ezartzeko premia ardatz zuen ponentzia batekin, betiere enpresa eta erakunde horiek jasangarriagoak, lehiakorragoak eta mundurako onak izan daitezzen.

Illo horretan, krisialdiko eta hedabide eta erakundeekiko mesfidantza orokorreko garai hauetan enpresen rola balioan jarritz hasi zuen bere azalpena Eva Turanzok: “Krisialdi-garaietan, markak –bereziki beren kategorian eta merkatuetan baliosuenak direnak– babesleku seguru bihurtzen dira kapitalarentzat. Gaur egun, ongi administratutako, eta berritzaileak eta izen onekoak diren marketara jotzen du ekonomia globalak premiaren garaian. COVIDaren ondorengo susperraldian izan duten eta izaten jarraituko duten rola dugu marken garrantzia beste ezerk baino hobeto erakusten duena”, biltzarreko lehenengo ponentearen hitzetan.

AKTIBO UKIEZINAK KONPAINIEN BALIOAK ORDEZKATUZ.

Bere ponentzian, aktibo ukiezinak duten balio gero eta handiagoa hartu zuen ardatz Turanzok, eta azaldu zuenez, “finantza-adierazleek, enpresen egunerokoan kontsolidatuak, konpainia baten kaudimena eta errentagarritasuna erakusten dute, edo negozioaren bilakaera une jakin batean. Akti-

bo ukiezinak, ordea, etorkizunera begirako balioa nola sortuko duten adierazten digute. Hori horrela, aktibo horiek erakundeen balantzeetan eta kudeaketan integratzea lehentasun bat izango da mundu osoko enpresa eta zuzendarientzat”.

Puntu horretan, Turanzok azpimarratu zuen gizarte-erantzukizun korporatiboaren eta jasangarritasunaren kontzeptuak balioa sortzearen kontzepturantz eboluzionatu duela, non ingurumen- eta gizarte-arloko, eta gobernu korporatiboaren arloko irizpideak inplikaturik dauden, enpresa batean inbertitzeko garaian kontuan hartzen diren eta azken urteetan sozialki arduratsua den inbertsioaren erreferentzia bihurtu diren irizpideak izanik.

INGURUMENAREKIN, GIZARTEAREKIN ETA GOBERNU KORPORATIBOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIEN ESKAERA GELDIEZINA.

Eva Turanzok bere ponentziarekin jarraitu zuen Ingurumenarekin, Gizartearekin eta Gobernu Korporatiboarekin lotutako alderdien eskaera inoiz baino indartsuago eta hazkunde etengabea dagoela adieraziz:

“Gobernuek erregulazio-presioa areagotu duen pizgarri ekonomikoaren kopuru handiagoa hedatuz trantsizioa bizkortzeko eta gardentasuna bultzatzeko. Enpresek eta inbertitzaileek azeleragailua sakatu dute Ingurumenarekin, Gizartearekin eta Gobernu Korporatiboarekin lotutako estrategiak egikaritzeko epe luzerako eraldaketarekin irizpide horiek betetzen ez dituzten enpresak bermatu nahiko ez dituen merkatu batean ongi sartzeko, betiere irizpide horiek betetzen dituzten enpresei baino finant-

zaketa garestiagoa eskainiko baitie dena den”.

Kontsumitzaileek eta herritarrek, beren aldetik, jasangarritasun-irizpideak integratu dituzte beren erabakietan, enpresa-portaerari buruzko eskakizun-maila igoz, adierazi zuenez.

Illo horretan, azaldu zuen geopolitikatik (energetikoa, militarra eta elikagaien arlokoa) datorrela erronka eta Ingurumenarekin, Gizartearekin eta Gobernu Korporatiboarekin lotutako alderdiak etorkizuneko egonkortasunerako funtsezko iturri izan daitezkeela trantsizio energetikoaren azelerazio baten, balio-kateen bideratze baten eta epe luzerako lehiakortasun ekonomikoaren hobekuntza baten bidez.

KONPROMETITUAK, ETIKOAK, GARDENAK ETA BEREN HELBURUAREKIN KOHERENTEAK DIREN ENPRESAK EXIJITZEN DITU GIZARTEAK.

Amaitzeko, Turanzok labur azaldu zuen gure enpresa-sarea finkatzeko eta indartzeko premia dela eta –betiere errentagarritasuna, hazkundera eta jasangarritasuna ekarri– inoiz baino gehiago behar dela gobernu on korporatiboko erremintak ezartzea: “Enpresek –ez bakarrik multinazionalak, baita ere ETEek eta familia-enpresek– hartzen dituzten erabakiak mailaz igo behar dira eta beren helburuak gizartearen eskakizunekin batera proiektatu behar dituzte, gizarteak enpresa konprometitua, etikoak, gardenak eta beren helburuan koherenteak direnak eskatzen baititu, beren emaitzekin inpaktu positiboa izango dutenak beren interes-taldeek zer dioten entzunez”.



GARDENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN ARLOAN ERREFERENTZIA DIREN 3 EUSKAL ENPRESA

Enpresen Gizarte-erantzukizunerako Araba Foroaren XVI. Biltzarrean, halaber, elkarrizketa egin zen hiru euskal enpresarekin, hirurak oso askotarikoak baina guztiak ere erreferentzia direnak gardentasunaren eta gobernu onaren arloan: KL Katealegia, Kutxabank eta Mondragón Korporazioa. Andrés Goñi kazetari gasteiztarra moderatzaile-lanetan ari zela, enpresa horien ikuspegi eta etorkizuneko proiektuak hurbi-lagotik ezagutzeko aukera eman zigun mahai-inguru horrek.



KL KATEALEGIA

Irabazi-asmorik gabeko erakundea dugu KL Katealegia, helburutzat Gipuzkoan bazterketa soziolaboraleko arriskuan dauden eta desgaitasuna duten pertsonentzako kalitatezko enplegua lortzeko aukerak sortzea eta atxikitzea duena. Teknologia desberdineko osagaiak industrializatzeko, produzitzea, muntatzea eta kontrolatzea dituen proiektu integral bat da.

Sarean kolaboratzen du industria-sarearekin, enpresekin, gizarte-erakundeekin eta instituzioekin desgaitasuna duten pertsonen garapenean eta gizarte justuago bat lortzeko ahaleginean laguntzeko.

Pertsonak erdigunean jartzen dituen eta balio jakin batzuk –hala nola gizarte-berrikuntza, profesionaltasuna, kalitatea eta jasangarritasuna– ardatz dituen erakunde bat.

Illo horretan, 650 pertsonari baino gehiagori eskaini die orientabide profesionala eta desgaitasuna duten eta bazterketa soziolaboraleko arriskuan dauden 950 pertsona baino gehiagori ematen die enplegua.

Illo horretan, Pablo Nuñezek ordezkatu zuen KL, eta bere mintzaldian erakundearen helburua partekatu zuen, bazterketa soziolaboraleko arriskuan dauden eta desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunean ardaztua. Eta bereziki erakundearen izaera eta esperientzia parte-hartze eredu eta gobernantza-eredu gisa balio humanistetan oinarritutako koherentziatik eta eguneroko portaeretatik.

KUTXABANK

Kutxabanken aldetik, Itziar Castresana eta Xabier Notario izan ziren mahai-inguruan, gobernu-organoetako Aholkularitza Juridikoko eta Idazkaritza Teknikokoak.

Erakundearen egungo gobernantza-eredua azaltzea lehenetsi zuten beren azalpean, eredu oso berezia baita, non akzio-dunen % 100 banku-fundazioak diren, eta, hori horrela, gizarteari itzultzen zaio sortutako dibidenduaren % 100 fundazio horien bidez (BBK Fundazioa, Kutxa Fundazioa, Vital Fundazioa).

Castresanak eta Notariok Kutxabanken ereduaren xehetasunak zehaztu zituzten, non gobernu-organo bakoitzak zehatz-mehatz definituta dituen bere funtzio eta erantzukizunak, eta, aldi berean, erakundearen esparru guztiak barnean hartzen dituen politiken, eskuliburuaren eta prozeduren bloke batetik hornitzen den.

Azkenik, azpimarratu zuten sektore ikuskatuenetako baten barruan daudela, eta estatu osoko eta Europako ikuspegi desberdinak dituzten 15 erakundek baino gehiagok ikuskatzen dutela Kutxabank Taldea, edozein enpresa kotizatutako betetzen dituenaren antzeko merkaturako gardentasun-estandarrek betetz.



CORPORACIÓN MONDRAGÓN

Nork ez du ezagutzen Mondragón Korporazioa, munduko industria-kooperatiba handiena, World Cooperative Monitor erakunderen datuen arabera. Euskal jatorrikoa, eta gure lurraldean oso sustraitua, nazioarteko presentzia indartsua du gaur egun, 150 herrialdetan baino gehiagotan dituelarik salmentak.

Industria Kooperatiben Nazioarteko Federazioaren presidente Iñigo Albizurik korporazioa ordeztuz azaldu zuenez, 3.000 pertsonak baino gehiagok urtero bisitatzen dute erakundearen Arrasateko egoitza, "Korporatibismoaren Meka" gisa ezagutua, ikasteko eta haren ereduari inpiratzeko. Edozein enpresa/negozio mota lan-kooperatiba gisa bideratu daitekeela erakusten duen enpresa harrigarria.

Inoiz Mariana Mazzucato ekonomialari ezagunak adierazi zuen bezala, "gizarte-berrikuntzako munduko ekosistema handiena da" Mondragón Korporazioa.

Albizurik adierazi zuenez, gizarte-eragileekin eta Administrazio publikoekin duen lankidetzan oinarritzen du bere jarduerak, hazkunde ekonomikoaren, ingurumenaren babesaren eta gizarte-ongizatearen arteko oreka ahalbidetuko duten azpiegiturak eta gizarte-ekimen berritzaileak sustatuz.

Izan ere, erakunde aitzindaria dugu munduan Kooperatiben Kontseilu Gorena, mahai berean biltzen baititu Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, unibertsitateak (Euskadiko 3ak) eta kooperatiba-mugimendua (KONFEKOOP).

Albizurik bere azalpena amaitu zuen berretsiz ereduak erdietsitako lorpen guztiak kolektiboek ematen zaien informazio jarraituan, komunikazio etengabea eta kudeaketako gardentasunean oinarrituta daudela.

